



# ΟΤΟΣΚΟΠΙΟ, ΜΙΚΡΟΣΚΟΠΙΟ ΕΙΣ ΤΗ ΤΗΛΕΣΚΟΠΙΟ ΚΑΝΚΑΙΛΙΑ

Jatorrizko ideia eta textuak

**Ana M<sup>a</sup> García de Motiloa Gámiz**

Irudiak

**Raquel Gonzalo García de Motiloa**

Diseinu eta kolorea

**Maialen Gonzalo García de Motiloa**

Hiru lehengusu hauek aurkeztera natorkizue: Oto, Mikro eta Tele. Hirurek abizen bera dute: Skopio.

Gaitasun hau dute guztiek: guk pentsatu ere egin ezin ditugun zenbait gauza azter ditzakete.

Oto da hiruretatik txikiena, eta ederki asko ikusten ditu neska-mutikoen belarri-barruak.

Begi bakarra du, eta hura irekitzean edo ixtean, betile bakar batek ere ez du txintik ere esaten. Haien gainean, berriz, bekain bat dago, gau eta egun, euritan nahiz eguzkitan: ez da inoiz handik mugitzen.

Itsatsitako bi poltsikodun mantala erabiltzen du Otok, lepoan, berriz, tximeleta-begizta (gorbatarik, ia inoiz ez). Oinetan, bi zapata eraman ohi ditu, txiki-txikiak. Hilean behin bakarrik aldatzen ditu.

Mikro, berriz, handixeagoa da; hala eta guztiz ere, oso gauza txikiak ikusten ditu.

Otorenaren antzekoa du begia, oso handia, eta agurtu egiten du handik begiratu behar duena. Baina, kontuz!, Mikrok begi gehiago ere baditu eta (hiru, gehienez) txalekoaren amaieran. Gorbata ere jantzi ohi du, eta oinetako bakar bat.

Tele da hiruretatik garaiena, eta handiago ikusten ditu urruti dauden gauzak.

Otok eta Mikrok bezala, begi handi bar dauka, eta ederki moldatzen da harekin: noranahi eramaten du, eta ongi zaintzen ditu hiru bekainak.

Cowboyen antzera, botak, gerrikoa eta zapia jantzi ohi ditu, baina ez kapelarik.



Ospitale batean bizi dira Oto, Mikro eta Tele. Orain, beren aitona-amonekin daude, Makaria eta Fakundorekin alegia, gurasoak bidaiia batean baitira.

Asko maite dute elkar hiru lehengusuek, eta maiz kontaktzen dizkiote elkarri beren gorabeherak, eta badakite bat hizketan ari dela besteek entzun egin behar dutela; hartara, denek errespetatzen dute elkar, eta besteek kontaktzen dutena aintzat hartzen dute. Egun batean, uda partean, zerura begiratu eta, hara!, Eguzkia agurka ari zaie, eskuarekin. Orduan erabaki dute bestelako gauzak ikustea, besteek begiratzen dituzten lekuetan begiratzea, jende guztia hobeto ulertu baitute horrela eginez gero; enpatia izaten ikasiko dute, alegia.

Luze hitz egin ondoren, lehenbizi Oto hautatu dute.

Belarri bat begiratu behar dutenez, gauzez eta isil asko joan da oto Pio jaunaren gelara (estu-estua), guardia batetik besterako tartean medikua lo-kuluxka bat egiten ari dela.

Ez dute linternarik behar; izan ere, begiratzen dutenean, magiagatik edo, argi handi bat iristen zaie begietara.

Pio doktore jaunaren gela aurkitu dutenean, beldurrez ikusi dute ez dagoela han lotan. Antza denez, norbait artatzen ari da.

Horrenbestez, bakoitza leku batean ezkutatzera erabaki dute: oto, gau-mahaiko tiraderan; Mikro, kutxa-formako ohearen azpian;

Tele, azkenik, errezel urdin baten atzean.





Isil-isilik daude hirurak. Halako batean, hara non agertzen den Pio jauna; aharrausi egin, eta ohera sartu da. Ez da konturatu hiru lagun begira dituela.

Hiru begi daude, zabal-zabalik, Pio jaunak noiz lo hartuko zain. Loak hartzen duenean, hortzak estutu eta bere hamar pazienteen gaineko istorioak asmatzeari ekingo dio doktoreak.


Hartu du, bada, loak, eta haren zurrunga-hotsak ia-ia izutu egin ditu hiru lehengusutxoak.

Beren ezkutalekuetatik atera dira hirurak: lehenbizi, Oto; Mikro ondoren, eta, hirugarrenik, Tele, zerura begira egoten dena alegia.

Poliki-poliki, doktore jaunaren belarrira iritsi dira. Gure On Pioren bekainetako bat etengabe ari da dantzan, zurrungak direla eta.

Doktorearen belarria sartu du begia Otok, eta begiratzera gonbidatu ditu bi lagunak; lehenbizi, Mikro, eta ondoren, Tele.

Harrituta geratu dira han ikusi dutenarekin: danbor-itxurako pareta moduko bat "tinpanoa" deitzen diote, eta, haren atzean, hiru hezurtxo :mailua, ingudea eta estribua.



# LABORATEGIA

Hura guztia ikusi ondoren, korrika alde egin dute handik, txirrin bat hasi baita joka, amorru bizian, paziente kexati bat artatzera joan behar duela jakinarazteko Pio jaunari.

Luzaro ibili dira eta, azkenik, auditorio batetik igaro eta "laborategia" deitzen dioten leku batera iritsi dira.


Han bizi da On Mikro, gaixotasunak eragiten dituzten zergatiak aurkitzeko tresnaz inguratuta.

Bien bitartean, alde guztietara begira dabilta Oto eta Tele, jakin-minez. Mikrok, auskalo nola, hodi batean zegoen odol-tanta bat hartu eta kristal batean ipini du, lehengusuei hobeto erakusteko.

Otok begiratu du lehenbizi, lente moduko zulo batetik; bitartean, han dago zain bere lehengusu Mikro.

Orduan, txundituta geratu da tantatxo hartan hainbeste orban gorri-gorri ikustean. Manikien soinekoak dirudite tantatxoek, eta Mikrok dio "hematiak" direla. Han daude, halaber, txiki-txikiak, leukozitoak eta linfozitoak ere.

Lehengusu handiak begiratu du gero, eta primeran ari da pasatzen, ez baitu inoiz ikusi hain gauza txikirik halako begi zuhur batetik.






Erabat harrituta geratu dira hirurak eta, deskuidu batean, Telek, konturatu gabe, saio-hodi bat bota du lurrera. Beste behin ere gertatu zitzaion horrelakorik.

Ilunpe hartan entzun den hotsa dela eta, segurtasun-zaindaria bertaratu da. Piztu du bere linternatzarra, eta bazterrak miatzen hasi da. Kristal ugari ikusi ditu, lurrean biraka. Gero, argia piztu, eta ez dela ezer gertatzen ohartu da. Bere lekuan dago Mikro, eta haren atzean Oto, txikia. Handiena (Tele), berriz, bainugelako dutxa-errezelaren atzean ezkutatu da zarata entzutean. Kasualitatez edo, zaindaria ez du han begiratu.

Berriro isiltasuna nagusitu denean, beren ibilaldiekin jarraitu dute hiru lehengusutxoek, bazter guztiak arakatzen, erne eta gozatzeko gogoz.

## LABORATEGIA




Handik gutxira, ospitale handi horretako zabalgunera iritsi dira. Terraza moduko bat da zabalgunea, baina teilatuan dago.

Han bizi da gure lagun Teleskopio, zeruari begira eta begira, guk txiki ikusten duguna handi ikusiz: izarrak, konstelazioak, astroak, sateliteak, planetak eta zeruko beste zenbait gauza.

Ilargia, berriz, esnez gainezka dago, eta Maria gaileta bat bezain biribila: badirudi biraka hasi behar duela.

Zeruko edertasunari so jarri dira Teleren bi lehengusutxoak.



Mikrori asko gustatzen zaio izar handia baten inguruan puntak dotore mugitzen dituen izartxo bat. Azkenik, elkarri eskua eman eta biak dantzan hasi dira.

Erne dago Oto, eta konturatu da Marte txikia dela, orban ugari dituela, eta poloak, zuri-zuriak, elurrezkoak balira bezala, bete-beteak.

Berak ikusten dituen gauza askoren berri eman die Tele lehengusuak. Bizitzaren edertasunaz gogoeta eragiten diote Teleri gauza horiek. Dena dela, askotan ez gara ohartzen honetaz: edertasuna atzemateko, begiratzeko jakin behar da.






Horrela jarraitu dute, hizketan, harik eta honetaz konturatu diren arte: eguna argitzen hasia da, eta aitona-amonak kezkatuta egon daitezke, bilobak ez baitira ageri.

Zorionez, zurrungaka ari zen aitona bakoitza bere ohera itzuli zenean.

Berehala hartu zuten lo, eta ikasi zuten guztiarekin egin zuten amets. Hona hemen zer esan zien lehengusu batek amets haietako batean:

-Zuk begiratzen duzun horrekin begiratzen dut nik,  
begiratzen dudan horrekin, berriz,  
ikusten duzu zuk denok  
begiratu behar dugula beste nonbaitetik,  
hartara besteak ere  
ulertzen ikas dezagun





# AMAIERA

J.I.E. VI-148-2011